

2002tik, urteko 423 milioi eurotik gora ordaindu ditu interesetan

EROSKI-K 12 MILIOI EURO ORDAINDU DIZKIE INTERESETAN MENDEKO EKARPEN ETA OBLIGAZIOETAN INBERTITU DUTENEI

- Urtarrilaren 31n ordainduko zaie Mendeko Finantza Ekarpenei jabeei, eta otsailaren 1ean, berriz, Mendeko Obligazioen jabeei
- 2002an MFEetan inbertitu zuenak bere inbertsioaren %90 jaso du interesetan, eta %99, Mendeko Obligazioekin trukatu bazuen
- Aurtengo urteko interesak %6,368an gelditu dira finkatuta 2002an eta 2004an jaulkitako MFEetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %5,868an 2007ko jaulkipenerako

Elorrio, 2023ko urtarrilaren 31.- [EROSKI](#)k urtarrilaren 31an abonatuko ditu, asteartearekin, Mendeko Finantza Ekarpenei dagozkien urteko interesak, %2,541eko interes tasan 2002ko eta 2004ko jaulkipenetarako, eta %2,041etan 2007korako. Otsailak 1ean, era berean, EROSKI-k Mendeko Obligazioen urteko interesak abonatuko ditu, %2,541eko tasan. Guztira, 11,7 milioi euro abonatuko dizkie EROSKI-k interesetan inbertsio tituluak dituztenei.

EROSKI-k MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsiogileei; dagoeneko, 423 milioi euro guztira. MFEak eta Mendeko Obligazioak ordaintzeko, zeina ez baita kooperatibaren emaitza ekonomikoen araberakoa, erreferentzia gisa Euriborra gehi hiru puntu hartzen du MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenetarako eta Mendeko Obligazioetarako eta %2,5eko diferentziala MFEen 2007ko jaulkipenerako.

Abonu horren bitartez, MFEa 2002an hartu zuen inbertsiogile batek dagoeneko hasierako inbertsioaren %90 jaso du interesetan, eta %99 orain urte bat iraungitzen diren Mendeko Obligazioen trukea egin bazuen. MFEen 2004ko inbertsiogile batek, berriz, %77 hartu du dagoeneko interesetan, eta, trukea egin bazuen, %86; eta 2007ko batek bere inbertsioaren %52 jaso du, edo %61, trukea egin bazuen.

2023. urterako, interes tasa %6,368an geldituko da (%3,368 + %3ko diferentziala) MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



%5,868an (%3,368 + %2,5eko diferentziala) 2007korako, eta guztiak abonatuko dira datorren urtean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)